

## LOIOLA-KO SAN IÑAZIO

---

Zenon Uriguen  
pasiotarra



Munduko miraririk aundiena ez da illak bizitza barri batera ekartea. Munduko miraririk goragarriena arimak eta biotzak berbiztutzea da. Au da izan be San Inazioaren bizitzan ikusten doguna. Ara emen bere bizitzan Kristo gure Jaunak egindako mirariak

### LENENGO MIRARIA

San Inazio jatorri aundi bateko familian jaioa dogu. Bere gurasoak Beltran Ibanez de Onaz ta Marina Sanchez de Licona. Gaztetatik Arebalon eta geroago Najeran bizirik erregeen serbitzura. Bere bizimodua da jaiak, parrandak ta gerrarien ibillerak. Gero Iruñako arresietan zaurituta jauten da. Loiolara etorri ta asi dira beretzat oñaze garratzak. Zer izango da bere etorkizunaz? Bere zaurien oñazeak apur bat arintzeko abentura liburuak eskatzen ditu. Zorionez gaztelu artan Kristoren eta santuen bizitzaren liburuak bakarrik dagoz. Gogo aundi barik asi da irakurten eta ara emen Kristoren miraria, egizko miraria. Orain bai Kristo gure Jaunak berbiztu egingo dau, kristau bizitza barria bere izaeran eta bizieran eragiteko. Mirari ongarrri orren bidez zer izango da? Kristoren ta Elizaren serbitzaria. Gaurko gaztientzat esangura aundiko ikasbide eraginkorra.

## **BIGARREN MIRARIA**

Manresara joan eta zer? Arrigarrizko miraria! Gogo jardunak egiteko liburua idatzi eban mundu osoan millaka gogo jardunetan biotz barneko zintzotasunez ausnartzen dana. Nundik eta zelan artu eban Inaziok zeruko argitasuna ain liburu ederra idazteko? Arrigarria da benetan Euskal kristau zintzo batek, Espiritu santuaren graziaz, olako liburua argitaratzea. Kristo gure Jaunak biotz-barnea zeruko graziaz era-berritu dau. Kristok bakarrik dauko grazi berezia olako miraria egiteko.



## **IRUGARREN MIRARIA**

San Inaziok Parisko Sorbona ikastetxe nagusian, beste euskaldun bategaz, Franzizko Jabier, ikasteak egiten diardu. Franzizkok aundikia izateko bere burua lilluratuta dauko eta jakinduriaren jaun ta jabe izateko itxaropena. San Iñaziok bein eta beti dirautso: Zertarako da mundo guztia irabaztea zeure bizia galtzen ba dozu? Ekin eta ekin, ur tanta batek arria zulatzen dauan lez, Iñaziok Franziskori biotz-biotzez esaten dautso: “Egiaz Kristo gure Jauna da munduaren Jaun eta Jabe” Franzizkok grazi eraginkor bat sentitzen bere izaera osoan ta biotzari bira osoa emonik, Kristori eskaintzen dautso bere bizia ta mixiolari izatea. Jaunaren mirari arrigarria! Eta badoa zeruko aize indartsu baten eragiñez Japon errietara Kristoren erreñua, fede barria, bizitza barria zabaltzera.

## LAUGARREN MIRARIA

San Inaziok lagun zintzo ta jakitun batzuekin sortzen dau Erroman Jesusen Lagundia 1541 urtean. Bere egitasmoa da karisma barri ta eraginkor bat mundu osoan zabaltzea. Baña ez da ekintza erraza izango. Lutero, sasoi ortan, elizaren ta Aita Santuaren aurka dabil bultzada aundiaz. San Iñaziok ez dau bere burua sartuko, eztabaida latz orretan. Bere gogoa zintzo ta tinko erakutsiz “fundatu ta indartuko” dau Jesusen Lagundia elburu eder bategaz: **“Jainkoarentzat aintza gorena”**. Eta zintzo jokatu dau, Espiritu Santuaren graziaz, Kristori jarraitzeko adore biziaz. San Inazioarentzat Espiritu Santua da “argia ta sua” bere izaera osoan maitasunaren sugarra biztutzen dauana, profetaren sormena ta Kristoren bizi barria eragiñik. Ara emen Jaunaren miraria: San Inazio izango da Kristoren eta Elizaren “serbitzari bete-betea”. **Mundu onetako miraririk aundiena ez da illak berbiztutzea. Mundu onetako miraririk aundiena da arimak eta biotzak Kristoren bizitza barri batera ekartea.**

